



# LANGILEOK BORROKAN

## Gazteak **LIBRE**

Euskal gazteriaren kontrako jazarpen politikoak ez dauka etenik. Espainiar estatuak muntai polizial-judizialak eraikitzen jarraitzen du euskal gazteria kriminalizatzeko. Gazte independentistak zigortzea da espainiar Estatuak aro politiko berri honetarako duen eskaintza bakarra. Mugimendu bakar bat ere ez, galga jarri eta atzera egiteko ez bada.

Gazte independentisten kontrako azken makroepaiketaren sententziak gazteak ezezik, haien familiak eta Euskal Herri oso zigortzen ditu. Larriak dira epaiketa honen aurrekariak eta larria azken ebazpena, zazpi gazteren espetxeratzearekin. 2009an, atxilotuak izan zirenetik, gazteok benetako amesgaiztoa pasatu dute: inkomunikazioa, zirko mediatikoa, epaiketak dakarren kalte ekonomikoa, espetxean emandako denbora. Tortura bidez lortutako aitortenak izan dira auziaren oinarri bakarra eta hasieratik azkeneraino oinarritzko giza-eskubideen etengabeko urraketa eman da.

Funtsik gabeko akusazioa izan da, eta hala ere, helburu politikoarekin hasitako prozesua izanik, zigor politikoa ekarri du azkenean. Zoritxarrez espainiar estatuaren aldetik euskal herritar guztien aurkako jokabide arrunta da, baina ezin dugu ahaztu gazteak bereziki kolpatuak direla, disidentzia politikoa errotik mozteko estatuaren obsesioaren ondorioz.

Gazteria otzan eta esanekoa nahi dute, baina ez dute lortu, ezta lortuko ere.

Ez dugu kondena politikorik onartzen. Euskal gazteriaren kontrako erasoak behin betiko amaitu behar dira. LABek gogoan ditu gazte independentisten moduan auzi judizialean prozesaturik dauden euskal herritar guztiak. Espetxeak bete ez, espetxeak hustutzeko garaia da. Estatuak, bere botere ezberdinetatik, gatazkari eta errezeta zaharrei heldu nahian jarraitzen duen arren, konponbide garaia da.

Euskal gazteria libre nahi eta behar du Euskal Herriak. Gazteak dira gure oraina eta etorkizuna, eta bake eta konponbide aroaren eraikuntzan haien ekarpena ezinbestekoa dugu.

Herri harresia gero eta sendoagoa izan dadin lanean jarraitu behar dugu, eskubide zibil eta politikoen aldeko defentsan. LABetik dei egiten dizuegu Euskal Herriko langile guztiei, eta herritarrei orohar, gure herriaren, gure gazteriaren kontrako azken bidegabekeria hau salatu eta Estatuaren estrategia errepresiboaren aurrean, Euskal Herria libreago bat eskatzeko datorren astebururako deituak izan diren mobilizazioetan parte hartzera - maiatzaren 17an Gasteizen manifestazioa egingo da- eta salaketa hori bera lantokietara ekarri eta ikusgai egitera.

**LAB**



# LANGILEOK BORROKAN

## Gazteak LIBRE

La persecución política contra la juventud vasca no cesa. El estado español continúa construyendo montajes policiales y judiciales con el único objetivo de continuar con la criminalización de la juventud vasca. En esta nueva fase política la única oferta del estado español pasa por castigar a los y las jóvenes independentistas. Ni un solo movimiento, si no es para dar marcha atrás.

La última sentencia del macrojuicio contra la juventud independentista no solo castiga a los y las jóvenes, castiga a sus familiares y a Euskal Herria entera. Los precedentes, al igual que la resolución de este juicio, son graves. Siete jóvenes han sido encarcelados y encarceladas. Desde 2009, año de su detención, los y las jóvenes han pasado un auténtico calvario: incomunicación, circo mediático, costes económicos derivados de los juicios, tiempo permanecido en prisión. Las confesiones logradas han sido bajo tortura y la única base de este juicio se ha sustentado en la vulneración continua de los derechos humanos básicos.

La acusación no ha tenido fundamento, y aun así, al ser un proceso sustentado en objetivos políticos, el castigo político se ha llevado a cabo. Por desgracia, esta manera actuar del estado español es muy conocida para la ciudadanía vasca, pero no podemos olvidar que especialmente es la juventud la más castigada en la obsesión del Estado de cortar la disidencia

política de raíz. Quieren una juventud obediente y que se amolde a su guión, pero ni lo han conseguido, ni lo conseguirán.

No aceptamos condenas políticas. Los ataques contra la juventud vasca tienen que cesar de una vez por todas. LAB tiene presentes a todos y todas las ciudadanas procesadas por el mero echo de ser jóvenes e independentistas. No es hora de llenar las cárceles, es hora de vaciarlas. Aunque el estado, a través de sus diferentes órganos de poder, pretenda perpetuar el conflicto con sus viejas recetas, es hora de soluciones.

Euskal Herria quiere y necesita una juventud vasca libre. La juventud es nuestro presente y nuestro futuro, y su aportación en la construcción de una era de paz y soluciones es imprescindible.

Tenemos que seguir trabajando para que la muralla popular en defensa de los derechos civiles y políticos sea cada vez más fuerte. Desde LAB os emplazamos a todos y todas las trabajadoras vascas, y a la ciudadanía en general, a que denunciéis la última maniobra contra nuestra juventud y la estrategia de represión del Estado, participando en las movilizaciones convocadas para el próximo fin de semana - el 17 de mayo se celebrará una manifestación en Gasteiz- y trasladando y haciendo visible esta denuncia en los centros de trabajo.

**LAB**